



Anticoncepción
y métodos anticonceptivos

Kontrazepzioa
eta antisorgailuak

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Anticoncepción
y métodos anticonceptivos

Kontrazepzioa
eta antisorgailuak

Coordinación Koordinatzaileak:

Instituto de salud Pública,
sección de Promoción de la Salud
Osasun Publikoaren Institutua, Osasuna
Sustatzeko Atala

Autoras Egileak:

Iratxe Los Arcos Jiménez
Asun Roldán Arroniz
Feli Sanchez Inchausti
Ania Irazoqui Ceberio

**Revisión y aportaciones
Berrikuspena eta ekarpenak:**

Margarita Echaurre Ozcoidi

Fotografías, ilustraciones, diseño y maquetación Argazkiak, ilustrazioak, diseinua eta maketazioa:

Alumnado del ciclo de grado medio de gráfica impresa. Escuela de arte y superior de diseño de Pamplona 2020
Iruñeko arte eta goi-mailako diseinu eskola. Grafika inprimatuko erdi-mailako zikloko ikasleak. 2020

Alumnado **Ikasleak** | Gaizka Apezetxea | Saúl Artola | Irune Díez de Ure | Eduardo Echegaray | Olaia García |
Rocío Guadalupe | Estefany Gonzales | David Gozálves | David Irurtia | Amaia Larrañaga | Iban Leache | Inés Pardavila
Pablo Sánchez | Tatiana Sánchez | **Profesorado Irakasleak** | Patricia Martiartu | Paco Polán | Roberto Barbero

ÍNDICE AURKIBIDEA

1. Sexualidad y anticoncepción Sexualitatea eta kontrazepzioa	6
2. El cuerpo y la reproducción Gorputza eta ugalketa	8
3. Métodos anticonceptivos Antisorgailuak	12
3.1. Preservativo masculino o de uso externo (condón) Preserbatibo maskulinoa edo kanpoan jartzekoa (kondoia)	14
3.2. Preservativo femenino o de uso interno Preserbatibo femeninoa edo barruan jartzekoa	18
3.3. Diafragma Diafragma.....	22
3.4. Anticonceptivo oral de solo gestágeno Gestageno hutseko ahozko antisorgailua	24
3.5. Píldora combinada Pilula konbinatua.....	26
3.6. Anillo vaginal Baginako eraztuna	28
3.7. Parche anticonceptivo transdérmico Partxe antikonzeptibo transdermiko.....	30
3.8. Inyectable Injektagarria	34
3.9. Implante subcutáneo Azal azpiko inplantea.....	36
3.10. Dispositivo intrauterino (DIU) Umetoki barneko gailua (UBG).....	38
3.11. Ligadura de trompas Tronpen lotura.....	40
3.12. Vasectomía Basektomia	41
4. Anticoncepción de urgencia Larrialdietako kontrazepzioa	42
4.1. Píldora postcoital o del día después Koito ondoko pilula edo biharamuneko pilula.....	42
4.2. D.I.U. Post-coital Koito ondoko UBGA	43
5. Y conociendo nuestro ciclo. Eta gure zikloa ezagutuz.	44
5.1. El calendario (Ogino-Knaus) Egutegia (Ogino-Knaus).....	45
5.2. Temperatura basal Oinarrizko tenperatura	46
5.3. Moco cervical (Billings) Lepoko mukia (Billings)	47
5.4. Sintotérmico Sintotermikoa	48
5.5. Espermicidas locales Baginarako espermizidak	49
6. Sabías que... Bazenekien...	50
7. Entonces... ¿cómo me decido? Orduan... nola erabakiko dut?	54
8. Centros de atención a la salud sexual y reproductiva Sexu-eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroak	56



Sexualidad y anticoncepción

Somos personas sexuadas, con un cuerpo sexuado, afectos sexuales y por tanto muchas formas de vivir la sexualidad y múltiples maneras de expresarla.

Junto con el placer y la comunicación, la reproducción es una de las posibilidades que nos proporciona la sexualidad. Es importante en la vida de las personas siendo fundamental planificar y cuidar esa decisión.

Pertsona sexudunak gara, gorputz sexudunarekin, afektu sexudunekin; horrenbestez, sexualitatea bizitzeko modu ugari daude, baita sexualitatea adierazteko hainbat bide ere.

Plazerrarekin eta komunikazioarekin batera, ugalketa da sexualitateak eskaintzen dizkigun aukeretakoa bat. Pertsonen bizitzetan garrantzitsua da, eta erabaki hori zaintzea eta planifikatzea funtsezkoa da.

Sexualitatea eta kontrazepzioa

Nuestra erótica en el compartir prácticas sexuales con otras personas es variada: besos, caricias, masturbación, masajes... y/o relaciones de penetración/coito vaginal, oral y/o anal. Elegir el momento en el que mantener estas prácticas es importante así como respetar los ritmos y momentos tanto propios como los de las personas con las que decidimos relacionarnos. Compartir buen trato, placer y responsabilidad favorece el disfrute y evita malos rollos.

Si se desea incluir entre las prácticas sexuales el coito vaginal, la anticoncepción permite planificar el momento de tener hijos o hijas y la elección del número. Permite tener relaciones sexuales coitales vaginales sin temor al embarazo y, según el método elegido, sin temor a las infecciones de transmisión sexual.

En conjunto, la anticoncepción permite una relación más estrecha con el cuerpo, explorarlo, conocerlo y quererlo más ¡nos da tantas oportunidades! y facilita vivir la sexualidad de una manera más libre, más afectuosa y más satisfactoria, cuidándome y cuidando a la persona con la que estoy.

Praktika sexualak beste pertsona batzuekin partekatzean gure erotika askotarikoa da: muxuak, laztanak, masturbazioa, masajeak... eta/edo penetrazio harremanak, koito baginala, aho bidezkoa eta/edo anala. Horrelako praktikak izateko unea aukeratzea garrantzitsua da, baita erritmoak eta unek errespetatzea ere, norberarenak zein harremanak izateko aukeratutako pertsonenak. Tratu ona, plazera eta erantzukizuna partekatuz gozamina handiagoa da eta "mobidak" saihesten dira.

Harreman sexualetan koito baginala eduki nahi izanez gero, kontrazepzioari esker seme-alabak izateko unea eta seme-alaben kopurua planifikatzen ahal dira. Haurdunaldiari beldurrik izan gabe koito baginalaren bidezko harreman sexualak izateko aukera ematen du, baita, aukeratutako metodoaren arabera, sexu transmisiozko infekzioen beldurrik izan gabe ere.

Orotara, kontrazepzioari esker gorputzarekin harreman estuagoa izan dezakegu, gorputza aztertu, ezagutu eta are gehiago maite dezakegu, horrenbeste aukera ematen dizkigu! Eta sexualitatea libreago bizitzen laguntzen digu, maitasunez eta modu pozgarrian, neure burua zainduz baita nirekin dagoen pertsonarene ere.

Es importante conocernos, el cuerpo, los gustos, los deseos así como respetar nuestros ritmos y momentos así como el de las personas con las que decidimos relacionarnos.

Garrantzitsua da geure burua, gorputza, gustuak eta desioak ezagutzea; baita gure erritmo eta unek zein harremanak izateko aukeratutako pertsonenak errespetatzea ere

El cuerpo y la reproducción

La **reproducción** se inicia cuando un óvulo y un espermatozoide se unen. La anticoncepción actúa poniendo barreras y dificultades a que lo hagan, diferentes según el tipo de método. Hay métodos que impiden que los espermatozoides penetren en la vagina, otros que entren al útero, otros impiden la formación del ovulo, etc.

Obulu bat eta espermatozoide bat elkartzen diren unean hasten da **ugalketa**. Antisorgailuek horretarako zailtasunak eta oztopoak jarri funtzionatzen dute; metodoaren arabera, antisorgailuek jarritako eragozpenak desberdinak dira. Metodo batzuek espermatozoideak baginara sartzea eragozten dute, beste batzuek utero edo umetokian sartzea, beste batzuek obulua sortzea saihesten dute, etab.

Gorputza eta ugalketa

Los óvulos y el ciclo menstrual

Los óvulos se forman en los **ovarios** que son dos órganos con forma de almendra situados a ambos lados del **útero** y producen hormonas llamadas estrógenos y progesterona.

A partir de la pubertad **aproximadamente cada 28 días** un ovario libera un **óvulo** maduro, que pasa por las **trompas** y llega hasta el útero.


Obuluak eta hilekoaren zikloa

Obuluak **obarioetan** sortzen dira; obarioak **umetokiaren** bi aldeetan kokatuta dauden bi organo dira, almendra formakoak; bi hormona sortzen dituzte: estrógeno eta progesterona deritzena.

Nerabezarotik aurrera, **gutxi gorabehera 28 egun** behin obario batek **obulu** heldu bat askatzen du; obulua **tronpetatik** igarotzen da umetokira iritsi arte.

Ciclo menstrual Hilekoaren zikloa

Aproximadamente 28 días
Gutxi gorabehera 28 egun



Regla

Ovulo: nuevo va madurando
Mucosa va creciendo

Hilekoa

Obulua: obulu berria hazten ari da
Mukosa: hazten doa

Ovulo: madura y sale (posibilidad de embarazo)

Flujo: + elástico y transparente

A veces puede haber molestias

Obulua: heldu da eta atera egiten da (Haurdunaldi arriskua)

Fluxua: elastiko eta gardenagoa
Batzuetan molestiak izan daitezke

Mucosa: madura

Con fecundación: implantación en el útero

Sin fecundación: regla (mucosa descama)


Mucosa: heldua

Ernalkuntzarekin: uteroan finkatzea


Ernalkuntza gabe: hilekoa (mucosa ezkatatua)

Sentimos a través de la piel, de los sentidos, de los genitales... Los labios mayores y menores, las paredes de la vagina así como el ano y sobre todo el clítoris son muy sensibles al roce y a las caricias siendo puntos importantes de excitación y placer.

Azalaren bitartez, zentzumenen bitartez, genitalen bitartez sentitzen dugu... Ezpain handiak eta txikiak, baginaren pareta, uzkia eta, batez ere, klitoria oso sentikorak dira laztanekin, eta plazera jasotzeko eta kitzikatzeko oso puntu garrantzitsuak dira.



Prepucio del clítoris
Klitoriaren prepuzioa



Labios mayores
Ezpain handiak
Abertura uretral
Uretraren irekilekua
Labios menores
Ezpain txikiak
Vagina
Bagina
Ano
Uzkia

Los espermatozoides

Se producen en los **testículos**, van al **epidídimo** dónde terminan de madurar y desde allí por unos conductos llamados **conductos deferentes** pasan a las **vesículas seminales** donde se produce el semen. De allí llegan a la uretra que va por el interior del **pene**.

A través de la penetración vaginal, el líquido preseminal y seminal, pueden facilitar que los espermatozoides vayan hasta el útero donde se pueden unir al óvulo produciendo la fecundación.


Desde la uretra se produce tanto la salida de semen como de orina. Nunca se producirán ambas al mismo tiempo.

Espermatozoideak

Testikuluetan sortzen dira, eta **epididimora** jotzen dute; han erabat heltzen dira eta handik, **hodi deferenteak** izeneko hodi batzuetatik, **semen besikuletara** iristen dira, eta horietan semena sortzen da. Handik, **zakilaren** barrutik doan uretrara iristen dira.

Baginako penetrazioaren bitartez, semenaren aurreko likidoari eta semenari esker espermatozoideak umetokiraino irits daitezke, eta han obuluarekin bat egin dezakete, ernalketa gauzatuz.


Uretratik semena zein txiza kanporatzen dira. Ezinezkoa da biak aldi berean kanporatzea.



Uretra
Uretra
Próstata
Próstata
Vesícula seminal
Semen besikula
Conducto deferente
Hodi deferentea
Epidídimo
Epidídimo
Testículo
Barrabila
Pene
Zakila

Sentimos a través de la piel, de los sentidos, de los genitales... El pene y sobre todo su terminación, el glándula y también el escroto, la bolsa que contienen los testículos, son partes muy sensibles al roce y las caricias. El ano, es una zona con mucha sensibilidad por tanto su estimulación puede producir placer también.

Azalaren bitartez, zentzumenen bitartez, genitalen bitartez sentitzen dugu... Zakila, eta batez ere bere bukaera, glandea, bai eta eskrotoa ere, barrabil zorroa, fereka edo laztanekiko oso sentikorak dira. Uzkia oso zona sentikorra da eta hura estimulatzeak ere plazera ekar dezake.



Pene
Zakila
Prepucio
Prepuzioa
Frenillo
Prepuzio-haria
Glande
Glandea
Escroto
Eskrotoa

Métodos anticonceptivos

Existen diferentes métodos anticonceptivos y es importante conocerlos y valorarlos para elegir el que mejor se adecue a nuestras circunstancias y necesidades.

No existe un método ideal, cada persona según el momento vital, su salud, la frecuencia de prácticas coitales vaginales y otros aspectos decidirá el que mejor le va.

Hainbat antisorgailu daude, eta metodo horiek ezagutzea eta baloratzea garrantzitsua da, gure egoerara eta beharizantetara hobekien egokitzen dena aukeratu ahal izateko.

Ez dago metodo idealik, pertsona bakoitzaren unearen araberakoa da; zure osasunak, koito baginalen maiztasunak eta bestelako alderdi batzuek ebatziko dute metodorik onena zein den.

Antisorgailuak

Hoy en día, hay más información, acceso y también mayor disponibilidad a los diferentes métodos. Sin embargo, existen factores como *“me da corte”*, la información de las personas profesionales, la opinión de nuestra pareja o la de las personas que tenemos alrededor, las características del método (como la comodidad, la seguridad...) y nuestra propia percepción, que influyen a la hora de usarlos.

También todavía en nuestra sociedad se asocian determinados métodos con *“falsas ideas”* como es el caso del preservativo uniéndolo a *“estorbo”*, *“corta rollos”*, *“reducción de placer”* o relacionándolo con parejas inestables, esporádicas o a la desconfianza entre ellas. Esto dificulta valorar sus ventajas y el uso más generalizado del mismo.

En la actualidad, la **responsabilidad** de la anticoncepción, recae mayoritariamente en las mujeres. Es importante compartir la responsabilidad ya que permite una prevención eficaz, la planificación del embarazo y el dedicarle el espacio y el cuidado necesario a la relación sexual sin miedos, inseguridades ni preocupaciones. Hablar de usarlo abre las puertas a la autoestima, la confianza, la comunicación... La alegría, el placer y el disfrute se incrementan al desaparecer el miedo a un embarazo no planificado.

Gaur egun informazio gehiago daukagu, informazioa lortzeko aukera ere handiagoa da eta metodo horiek eskuragarriago ditugu. Hala ere, hainbat faktore daude. Esaterako *“lotsa ematen dit”* horrek, profesionalen informazioak, gure bikotekidearen edo inguruan ditugun pertsonen iritziak, metodoaren ezaugarriek (erosotasuna, segurtasuna...) eta geure pertzepzio propioak eragina dute metodoak erabiltzerakoan.

Bidenabar, oraindik gure gizartean zenbait metodo *“ideia faltsuekin”* lotzen dira. Adibidez, preserbatiboa *“traba”* izatearekin lotzen da, *“rolloa mozten duela”* edo *“plazera murrizten duela”* esanez, edo bikotekide ezegonkorrekin, esporadikoekin lotzen da, edo bikotekideen arteko konfiantza ezarekin. Horrek zaildu egiten du antisorgailuen abantailak baloratzea eta modu orokorragoan erabiltzea.

Gaur egun, antisorgailuaren **ardura** batez ere emakumeen esku geratzen da. Ardura partekatzea garrantzitsua da; prebentzioa eraginkorra izatea eta haurdunaldia planifikatzea ahalbidetzen du, harreman sexualei behar bezalako zaintza eta espazioa eskaintzeko aukera ematen du, beldurrik, kezkarik eta ziurgabetasunik gabe. Hura erabiltzeari buruz hitz egitean bidea irekitzen zaio autoestimuari, konfiantzari, komunikazioari... Plazera eta atsegina handitzen dira desagertzen delako planifikatu gabeko haurdunaldia izateko beldurra.

3.1. Preservativo masculino o de uso externo (condón) Preserbatibo maskulinoa edo kanpoan jartzekoa (kondoia)

¿Qué es? Zer da?

Es una funda fina, elástica y resistente de látex u otros materiales, que se coloca en el pene erecto antes de la penetración y recoge el semen.

Su eficacia es muy alta, siempre teniendo en cuenta que hay que guardarlo, colocarlo y retirarlo bien.

Puede utilizarse conjuntamente con espermicidas y lubricantes adicionales, que sean solubles en agua, para evitar que se rompa y facilitar las relaciones de penetración.

Zorro mehe bat da, elastikoa eta sendoa, latexekoa edo beste material batekoa, zakil tentetuari jartzen zaiona, sartu baino lehen, eta isuritako hazia biltzen duena.

Eraginkortasuna oso handia da, betiere kontuan hartuta ongi gorde, jarri eta kendu behar dela beti.

Espermizidekin eta lubrifikatzaile osagarriekin batera erabil daiteke, uretan disolbagarriak badira, hondatu ez dadin eta penetrazio bidezko harremanak errazteko.

Ventajas Abantailak

Además de evitar el embarazo, el preservativo es el mejor método para prevenir infecciones de transmisión sexual (ITS).

No tiene ningún efecto secundario, ni contraindicaciones.

Haurdunaldia saihesteaz gain, preserbatiboa metodorik onena da sexu transmisiozko infekzioak (STI) saihesteko.

Ez dauka bigarren mailako ondorioirik, ezta kontraindikaziorik ere.

¿Cómo utilizarlo? Nola erabili behar da?

- Es de un sólo uso.
- Confirma que el preservativo se encuentra en buen estado y no está caducado.
- Ábrelo con cuidado, no utilices los dientes, ni tijeras.
- Comprueba, si tienes el preservativo en la posición correcta, mirando hacia qué lado se desenrolla. Cuando lo pongas es necesario apretar el depósito para asegurar que no queda aire dentro.
- Desenrolla el preservativo a lo largo del pene. Es necesario poner(te) el preservativo cuando el pene está en erección. Y siempre colocarlo antes de realizar la penetración.

Durante las prácticas sexuales coitales, comprueba si el preservativo sigue bien puesto. Después de la eyaculación, hay que sacar el preservativo con cuidado. Es conveniente sujetarlo con el pene cuando lo retires, para garantizar que el semen permanezca dentro del condón y no se quede dentro de la vagina, boca y/o ano.

El preservativo se tira a la papelera.





- Behin bakarrik erabil daitezke.
- Egiaztatu preserbatiboa egoera onean dagoela eta ez iraungita.
- Ireki ezazu kontuz (ez erabili hortzak edo guraizeak).
- Egiaztatu preserbatiboa posizio zuzenean duzula ikusita zer aldetara hedatzen den. Jartzen duzunean, beharrezkoa da depositua estutzea segurtatzeko ez dela barruan airerik geratzen.
- Hedatu preserbatiboa zakilean zehar. Ezinbestekoa da zakila tente dagoenean jartzea preserbatiboa. Eta koitoa baino lehen ipintzea.

Koitozko jardun sexualetan aritu bitartean, preserbatiboa ongi jarrita dagoela egiaztatu. Eiakulatu ondoren, preserbatiboa arreta handiarekin atera behar da. Zakilarekin preserbatiboari eutsi kentzen duzunean, bermatzeko hazia kondoia barruan geratzen dela eta ez baginaren, ahoaren eta/edo uzkiaren barruan.

Preserbatiboa paperontzira botatzen da.

Evita que el semen entre en la vagina

Semena baginan sartzea eragozten du



Ten en cuenta que... Kontuan izan...

Guarda los preservativos en un lugar seco, a temperatura ambiente (temperaturas muy bajas o muy altas pueden dañarlos), sin luz directa. No los guardes en el bolsillo, el coche, la moto o la cartera durante mucho tiempo (más de 1 mes), ya que la humedad y el calor excesivo pueden dañarlos.

Los condones no pueden reutilizarse. Usa un nuevo condón cada vez que tengas prácticas sexuales de penetración vaginal, oral y/o anal. También es necesario usar un nuevo condón si cambias de una práctica a otra (por ejemplo, de sexo anal a sexo vaginal)

No se recomienda utilizar dos condones (masculinos) a la vez así como tampoco un masculino y un femenino juntos ya que con el roce de ambos se pueden romper con más facilidad.

Los preservativos de uso externo o masculinos puedes usarlos con lubricante tanto dentro como fuera del preservativo, pero si pones demasiado dentro, el condón puede deslizarse fuera del pene. Utiliza lubricantes de base acuosa (en lugar de base aceitosa). El aceite puede degradar el látex del preservativo, haciéndolo poroso, facilitando que se rompa.

En el caso del preservativo de uso externo si pierdes la erección mientras usas el condón es conveniente cambiar de condón y una vez que el pene esté firme otra vez, coloca uno nuevo.

Gorde kondoiak toki lehorrean, giro-temperaturan (temperatura oso baxuek edo oso altuek kalte egiten ahal diete), eguzkiaren argiak zuzenean jotzen ez duela. Ez gorde poltsikoan, autoan, motoan edo diru-zorroan denbora luzez (hilabete baino gehiago), hezetasunak eta gehiegizko beroak kalte egiten ahal dietelako.

Kondoiak ezin dira birritan erabili. Erabili beste kondoi bat baginako, ahoko eta/edo uzkiko koitozko jardun sexualak dituzun bakoitzean. Halaber, beste kondoi bat erabiltzea beharrezkoa da jardun batetik bestera igarotzen zarenean (esaterako, uzkiko sexutik baginako sexura).


Ez da komenigarria aldi berean bi kondoi (gizonenak) erabiltzea, ezta preserbatibo maskulino bat eta preserbatibo femenino bat aldi berean erabiltzea; izan ere, bien arteko igurtziarekin errazago hautsi daitezke.

Preserbatibo maskulinoaren kanpoan eta barruan erabil dezakezu lubrifikatzailea, baina, barruan gehiegi ipintzen baduzu, kondoiak zakiletik kanpora atera daitezke irristatuta. Ur-oinarriko lubrifikatzaileak erabili (olio-oinarrikoak baliatu beharrean). Olioak preserbatiboaren latexa hondatu dezake, porotsu eta hauskor bihurtzen duelarik.

Kanpotik erabiltzeko preserbatiboaren kasuan, preserbatiboa erabiltzen ari zarela ere ez duzue gero, komeni da preserbatiboa aldatzea eta zakila berriz tente dagoenean preserbatibo berria jartzea.

Con la práctica, tu confianza en el uso de estos métodos mejorará y facilitará el conocimiento de tu genitalidad. En el caso de los preservativos puedes probar tallas, formas y marcas diferentes también colores, sabores..., así como diferentes lubricantes para descubrir los que mejor te vayan o más guste.

Praktikatu, metodo hauen erabileran duzun konfiantza hobetu egingen da, eta zure genitalak ezagutzea ere erraztuko dizu. Preserbatiboen neurri, forma eta marka ezberdinak probatzen ahal dituzu (baita, esaterako, kolore eta zapoak ere); lubrifikatzaile desberdinak ere bai, zuretzat egokiena zein den ikusteko.



3.2. Preservativo femenino o de uso interno

3.2. Preserbatibo femeninoa edo barruan jartzekoa

¿Qué es? Zer da?

Es una funda de nitrilo, con un anillo flexible en cada extremo, uno fijo que queda en la parte de la vulva y otro móvil que quedará dentro.

Nitrilozko zorro bat da; mutur bakoitzean eraztun malgu bat dauka; bat finkoa da, bulbaren aldean geratzen dena, eta bestea mugitu egiten da, eta barruan geratzen da.

Ventajas Abantailak

Además de evitar el embarazo, el preservativo es el mejor método para prevenir infecciones de transmisión sexual.

Haurdunaldia saihesteaz gain, preserbatiboa metodorik onena da sexu transmisiozko infekzioak ekiditeko.






¿Cómo utilizarlo? Nola erabili behar da?

- Es muy importante que antes de usar el preservativo confirmes que éste se encuentra en buen estado y no este caducado.
- Ábrelo con cuidado, no utilices los dientes, ni tijeras.
- Aprieta los lados del aro interno en el extremo cerrado del preservativo y deslízalo dentro de la vagina.
- Empuja el aro interno dentro de la vagina lo más que puedas. Asegúrate de que no esté retorcido.
- Retira el dedo y deja que el aro grande sobresalga de la vagina.
- Asegúrate de que el preservativo esté bien colocado evitando que haya contacto genital.
- No es necesario retirarlo inmediatamente después de la eyaculación. Para ello, gira el anillo que queda afuera y sácalo suavemente, así el semen no se caerá.
- Una vez retirado el preservativo se tira a la papelera.

- Oso garrantzitsua da preserbatiboa erabili aurretik egiaztatzea egoera onean dagoela eta ez iraungita.
- Ireki ezazu kontuz (ez erabili hortzak edo guraizeak).
- Estutu itzazu barruko uztaiaren aldeak kondoiaren mutur itxian eta sartu baginan barrena.
- Bultza egin barruko uztaiari, baginaren barruan ahalik eta gehien. Egiaztatu ez dagoela bihurrituta.
- Atera behatza eta utzi kanpoko uztaiaren gain kanpo.
- Ziurta ezazu preserbatiboa ondo jarrita dagoela, genitalen arteko kontaktua saihestuz.
- Ez da beharrezkoa segituan kentzea eiakulazioaren ondoren. Horretarako, kanpoan dagoen eraztuna biratu eta pixkanaka atera behar duzu. Horrela, semena ez da eroriko.
- Preserbatiboa kendu ondoan, paperontzira botatzen da hura.

Evita que el semen entre en la vagina

Semena baginan sartzea eragozten du



Ten en cuenta que... Kontuan izan...

Guarda los preservativos en un lugar seco, a temperatura ambiente (temperaturas muy bajas o muy altas pueden dañarlos), sin luz directa. No los guardes en el bolsillo, el coche, la moto o la cartera durante mucho tiempo (más de 1 mes), ya que la humedad y el calor excesivo pueden dañarlos.

Los condones no pueden reutilizarse. Usa un nuevo condón cada vez que tengas prácticas sexuales de penetración vaginal.

Los preservativos de uso interno o femeninos vienen ya lubricados, aunque se puede añadir lubricante extra en el interior. Estos preservativos son de nitrilo, por lo que se pueden usar lubricantes de base acuosa o aceitosa. Y son aún más resistentes que los preservativos masculinos de látex.

No se recomienda utilizar un preservativo masculino y un femenino juntos ya que con el roce de ambos se pueden romper con más facilidad.

Gorde kondoiak toki lehorrean, giro-tenperaturan (tenperatura oso baxuek edo oso altuek kalte egiten ahal diete), eguzkiaren argiak zuzenean jotzen ez duela. Ez gorde poltsikoan, autoan, motoan edo diru-zorroan denbora luzez (hilabete baino gehiago), hezetasunak eta gehiegizko beroak kalte egiten ahal dietelako.

Kondoiak ezin dira birritan erabili. Erabili beste kondoi bat baginako, ahoko eta/edo uzkiako koituzko jardun sexualak dituzun bakoitzean. Halaber, beste kondoi bat erabiltzea beharrezkoa da jardun batetik bestera igarotzen zarenean (esaterako, uzkiako sexutik baginako sexura).



Presebatibo femeninoak edo barruan jartzekoak lubrifikatuta daude, baina lubrifikatzaile gehiago jar daiteke presebatiboaren barruan. Presebatibo hauek nitrilozkoak dira eta, beraz, ur- edo olio-oinarria duten lubrifikatzaileak erabiltzen ahal dira. Latexezko presebatibo maskulinoek baino erresistentzia handiagoa dute.

Ez da komenigarria presebatibo maskulino bat eta presebatibo femenino bat aldi berean erabiltzea; izan ere, bien arteko igurtziarekin errazago hautsi daitezke.

Con la práctica, tu confianza en el uso de estos métodos mejorará y facilitará el conocimiento de tu genitalidad. En el caso de los preservativos puedes probar tallas, formas y marcas diferentes también colores, sabores..., así como diferentes lubricantes para descubrir los que mejor te vayan o más guste.

Praktikaturaz, metodo hauen erabileran duzun konfiantza hobetu egingen da, eta zure genitalak ezagutzea ere erraztuko dizu. Presebatiboen neurri, forma eta marka ezberdinak probatzen ahal dituzu (baita, esaterako, kolore eta zaporeak ere); lubrifikatzaile desberdinak ere bai, zuretzat egokiena zein den ikusteko.





3.3. Diafragma

¿Qué es? Zer da?

Es un disco flexible de silicona, que se coloca en el interior de la vagina, recubriendo el cuello de útero.

Silikonazko diskotxo malgua da, emakumeak bere baginaren barrenaldean paratzen duena, umetokiaren lepoa estaliz.

Ventajas Abantailak

Puede utilizarse en más de una ocasión hasta que se caduca. Es reutilizable.

Behin eta berriz erabil daiteke, iraungi arte. Berrerabilgarria da.

¿Cómo utilizarlo? Nola erabili behar da?

Es muy importante que antes de usar el diafragma compruebes que éste se encuentra en buen estado y no esté caducado.

Flexionar los extremos del diafragma, introducirlo profundamente en la vagina.

Debe asociarse siempre con crema espermicida.

Es necesario comprobar que recubre el cuello del útero y queda ajustado.

Se coloca antes de cada coito vaginal y es necesario mantenerlo puesto un mínimo de 6 horas después.

Después de su uso, lavarlos con agua y jabón neutro. Secarlo y guardarlo en un lugar fresco, seco y protegido de la luz.



Oso garrantzitsua da diafragma erabili aurretik egiaztatzea egoera onean dagoela eta ez iraungita.

Diafragmaren ertzak tolestu eta sartu baginan, sakon.

Krema espermizidekin erabili behar da beti.

Umetokiaren lepoa estaltzen duela eta ondo egokitzen dela egiaztatu behar da.

Koito baginal bakoitzaren aurretik jarri behar da, eta koito baginalaren ondoren gutxienez 6 orduz eduki behar da jarrita.

Erabili eta gero, garbitu ura eta xaboi neutroa erabiliz. Lehortu eta gorde toki fresko, idor eta argirik gabeko batean.

Ten en cuenta que... Kontuan izan...

- Es necesario que permanezca hasta unas horas después de la última práctica coital vaginal. Si se va a producir un nuevo coito vaginal, es necesario añadir nuevamente crema espermicida.
- Este método no es recomendable en caso de descenso del suelo pélvico y útero (prolapso).

No previene de infecciones de transmisión sexual.

- Azken koito baginalaren ondoren ordu batzuetan jarrita eduki behar da. Beste koito baginal bat etorriko bada, krema espermizida erantsi berriro.
- Metodo hau ez da gomendagarria umetokia eta zoru pelbikoa jaitsiz gero (prolapsoa).

Sexu transmisiozko infekzioak ez ditu saihesten.

Con la práctica, tu confianza en el uso de estos métodos mejorará y facilitará el conocimiento de tu genitalidad. En el caso de los preservativos puedes probar tallas, formas y marcas diferentes también colores, sabores..., así como diferentes lubricantes para descubrir los que mejor te vayan o más guste.

Praktikatuz, metodo hauen erabileran duzun konfiantza hobetu egingen da, eta zure genitalak ezagutzea ere erraztuko dizu. Preserbatiboen neurri, forma eta marka ezberdinak probatzen ahal dituzu (baita, esaterako, kolore eta zaporeak ere); lubrifikatzaile desberdinak ere bai, zuretzat egokiena zein den ikusteko.

3.4. Anticonceptivo oral de solo gestágeno

Gestageno hutseko ahozko antisorgailua

¿Qué es? Zer da?

Es un preparado que sólo contiene progesterona. Se presenta en envases de 28 píldoras. La toma se inicia habitualmente el primer día de la menstruación, debe tomarse un comprimido diario durante 28 días, aproximadamente a la misma hora. Al terminar el envase se inicia de nuevo por la primera píldora del siguiente envase (sin descanso).

Soilik progesterona daukan pilula da. 28na pilula dituzten ontzietan saltzen da. Hilekoaren lehen egunean hasi ohi da hartzen. Egunero pilula bat hartu behar da 28 egunean, eta gutxi gorabehera, ordu berean. Kutxa amaitutakoan, prozesua berriro hasten da, hurrengo kutxako lehen pilula hartuta (atseden egunik gabe).

Ventajas Abantailak

Está indicada en mujeres que toleran mal los estrógenos o en determinadas situaciones en las que el uso de estrógeno está contraindicado. Se puede utilizar durante el periodo de lactancia y al finalizar la misma mientras se desee.

Estrogenoak gaizki toleratzen dituzten emakumeentzat aproposa da, edo zenbait kasu zehatzetan estrogenoa erabiltzeko kontraindikazioa dagoenean. Edoskitze aldian erabil daiteke eta hori amaitutakoan ere bai, nahi den denbora guztian.

Ten en cuenta que... Kontuan izan...

Ejerce un menor grado de control sobre el ciclo menstrual y sangrado que la píldora combinada. Pueden producir reglas irregulares o ausencia de las mismas.

No previene las infecciones de transmisión sexual.

Esta píldora también llamada minipíldora, deja de ser eficaz en caso de olvidos, vómitos o diarreas y/o la toma de otros medicamentos y preparados con los que tienen interacciones.

Tiene una eficacia anticonceptiva muy elevada y no afecta a la fertilidad posterior.

No previene de infecciones de transmisión sexual.

Pilula konbinatuak baino kontrol maila txikiagoa du ziklo menstrualaren eta odol-galeraren gainean. Hileko irregularrak eragin ditzake edo are hilekoa galtzea ere.

Sexu transmisiozko infekzioak ez ditu saihesten.

Pilula horri minipilula ere esaten zaio, eta ez da eraginkorra hartzea ahaztuz gero, goragalea edo beherakoa izanez gero edota haiekin interakzioak dituzten beste medikamentu eta prestakin batzuk hartuz gero.

Antisorgailu oso eraginkorra da, eta ez du kalterik sortzen ondorengo ugalkortasunean.

Sexu transmisiozko infekzioak ez ditu saihesten.



3.5. Píldora combinada Pilula konbinatua

¿Qué es? Zer da?

Contiene estrógeno y progesterona que impiden la producción y liberación de óvulos por el ovario. Además, actúa a nivel del endometrio y moco cervical, reforzando su eficacia.

Existen varias presentaciones con diferentes números de comprimidos y distintas dosis hormonales.

Hay que tomar diariamente un comprimido, procurando mantener el mismo horario.

La regla aparece en el periodo de descanso o durante la toma de píldoras placebo o inactivas.

Su uso está restringido en algunas situaciones. Para poder utilizarla, es necesario acudir a una persona profesional sanitaria.



Estrogenoa eta progesterona dauzka, obarioek obuluak sortu eta askatzea eragozten duten hormonak. Hortaz gain, endometrioan eta lepoko mukian ere lan egiten dute, beren eraginkortasuna handitzeko.

Zenbait formatutan eskura daiteke, pilula-kopuru eta hormona-dosi ezberdinekin.

Egunero pilula bat hartu behar da, ahal bada ordu berean beti.

Hilekoa atsedendian agertzen da, edo plazebo-pilulak, eraginik gabekoak, hartu bitartean.

Ezin dira beti erabili. Erabili ahal izateko osasun arloko profesional batengana jo behar da.

Ventajas Abantailak

- Regula la frecuencia constante de las reglas y ciclo menstrual.
- Mejora las molestias asociadas al ciclo menstrual.
- Disminuye la cantidad y duración del sangrado de la regla.
- Puede mejorar problemas en la piel (acné).

Ten en cuenta... Kontuan izan...

No es conveniente que utilicen este método las mujeres con hipertensión arterial, migrañas, problemas cardiacos, diabetes o enfermedades hepáticas. No es recomendable su uso en mujeres fumadoras, especialmente si son mayores de 35 años, ya que la suma de estos factores aumenta el riesgo de efectos secundarios, sobre todo a nivel circulatorio.

Pueden producir efectos secundarios. Los más frecuentes son: dolor de cabeza, náuseas, sangrado entre reglas y tensión mamaria. En ocasiones se dan al inicio y con el tiempo van desapareciendo.

- Hilekoaren eta hilekoaren zikloaren maiztasun konstantea erregulatzen du.
- Hilekoarekin loturiko ondoezak arintzen ditu.
- Hilekoaren jarioa eta iraupena urritzen du.
- Azaleko arazoek (aknea) hobera egin dezakete.

Ez da komenigarria hipertentsio arteriala, migrainak, bihotzeko arazoak, diabetesa edo gaixotasun hepatikoak dituzten emakumeek metodo hau erabiltzea. Ez da komeni emakume erretzaileek erabiltzea, bereziki 35 urtetik gorakoak badira, faktore horiek batera bigarren mailako ondorioen arriskua handitzen baitute, gehienbat zirkulazio kontuan.

Bigarren mailako ondorioak eragin ditzakete. Ohikoenak honako hauek dira: buruko mina, goragalea, hilekoen artean odola isurtzea eta bularretako tentsioa. Batzuetan hasieran gertatzen dira, eta denborarekin desagertu egiten dira.



3.6. Anillo vaginal Baginako eraztuna

¿Qué es? Zer da?

Es un anillo de plástico flexible que contiene una composición de hormonas similar a la píldora combinada que se van liberando de forma constante y se absorben a través de la mucosa vaginal.

Se coloca en el interior de la vagina, manteniéndolo puesto durante tres semanas, y retirándolo durante la cuarta semana, en la que viene la regla. Pasada esta semana debe introducirse un nuevo anillo, el mismo día de la semana y aproximadamente a la misma hora en el que se insertó el anillo anterior.

Plastikozko eraztun malgu bat da, pilula konbinatuaren antzeko hormona-osaera duena. Eraztunak etengabe askatzen du hormona, eta gorputzak baginako muki-mintzaren bitartez xurgatzen du.

Bagina barreanean jartzen da, eta halaxe dauka emakumeak hiru astez. Laugarren astean kentzen du, hilekoa etorriko baita. Aste hori igaro ondoren, eraztun berri bat sartu behar da, aurreko eraztuna sartu zen asteke egun berean eta gutxi gorabehera ordu berean.

Ventajas Abantailak

Como el uso del anillo es vaginal y las hormonas no se tienen que absorber a nivel gastrointestinal, si presentas vómitos o diarrea, el anillo sigue siendo igual de eficaz.

Pueden regular las reglas.

